HEZKUNTZA PUBLIKOAN HASIBERRIAK

Irakasleak



2026-2027

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

SARRERA 3

1. IRAKASLEON SAILKAPENA: maila/kidegoa eta izaera 4-5

2. HEZKUNTZA SAILAREN GUNEAK..... 6

3. ZER EGIN LANEAN HASI AHAL IZATEKO? 7-9

4. ZERRENDA MOTEN ARTEKO LEHENTASUNA..... 9

5. BIRBAREMAZIOA 10

6. IKHA ESLEIPENAK eta ORDEZKAGUNEA..... 11-12

7. ZER EGIN LANPOSTU BAT LORTZEAN?..... 13

8. LANGABEZIA KOBRATZEA LANALDI MURRIZTUETAN 14

9. BATERAGARRITASUNAK.....14

10. ELA SINDIKATUAREN EZAUGARRIAK..... 15

SARRERA

Gida honetan EAEko hezkuntza publikoko irakasleen sektorearen funtzionamendua azalduko dugu.

Gida honekin oraindik ere galduta sentitzen bazara, jarri gurekin harremanetan, gustura asko erantzungo ditugu zure zalantzak.

Bilbo Leire Monasterio Lander Ozkorta Leire Urkidi	irakasbilbo@ela.eus	**944 03 77 86** 688 64 84 54 747 41 18 18 688 69 23 12
Gernika-Durango Ander Alonso	irakasgernikadurango@ela.eus	**946 21 76 80** 688 64 75 81
Ibaizabal-Nerbioi Kaiet Aristi	irakasibaizabalnerbioi@ela.eus	**944 05 58 88** 688 71 24 47
Eskumaldea Ion Goldaratz	irakaseskumaldea@ela.eus	**946 02 04 50** 688 64 96 51
Ezkerraldea-Kadagua Yoli Collado Simon Setien	irakasezkerraldea@ela.eus	**944 18 02 96** 688 88 16 79 747 43 12 90
Donostia Elene Sarasola Josu Elizondo Bakarne Odriozola	irakasdonostia@ela.eus	**943 00 50 21 – 943 00 50 22** 688 69 98 19 688 85 84 28 688 78 31 84
Oarso-Bidasoa Aitor Gabilondo	irakasoarsobidasoa@ela.eus	**943 63 84 70 – 943 00 01 13** 688 64 49 75
Oria Goierri Maitane Goldaratzena Itsaso Zaldua	irakasoriagoierri@ela.eus	**943 33 64 64** 747 47 95 26 688 64 76 93
Urola-Kosta Gorka Igartua	irakasurolakosta@ela.eus	**943 00 05 28 – 943 81 34 46** 688 64 50 84
Deba Saioa Aranburu Mikel Ros	irakasdeba@ela.eus	**943 81 34 46** 684 81 59 95 688 64 87 76
Araba Esti Martin Ainhoa Ferron Iñigo Macazaga	irakasgasteiz@ela.eus	**945 15 43 66 – 945 15 43 56** 688 64 69 59 688 64 45 81 688 64 89 34
Erlijio irakasleak Pablo de la Iglesia	pdelaiglesia@ela.eus	688 64 72 83
Nafarroa Uxue Itoiz Mikel Larraza Rakel Arjol	irakasirunea@ela.eus	**948 00 79 30** 688 69 52 27

1. IRAKASLEON SAILKAPENA

Irakasleak mailaren/kidegoaren eta izaeraren arabera sailkatzen gara. Garrantzitsua da norberak bere maila/kidegoa eta izaera zein diren argi izatea akatsak eta arazoak saihesteko. Izan ere, hezkuntzan dauden prozedura administratiboak, horietan izen emateko datak, puntuazio sistemak/baremoak eta hainbat gauza gehiago, aldagai horien arabera sailkatzen dira.

1.1. MAILA ETA KIDEGOA

Maila eta kidegoa lanean ari garen <u>espezialitatearen araberakoak</u> dira.

MAILA	KIDEGOA	ESPEZIALITATEAK / ZERRENDAK
Maisu-maistrak	**Maisu-maistrak**	Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, PT, musika, ALE, Gorputz Hezkuntzako… irakasleak.
Irakaskuntza ertainak	**Bigarren Hezkuntza**	DBH, batxilergoa, Lanbide Heziketako espezialitate gehienak, Kirolene: biologia, instalazio elektroteknikoak, filosofia…
	Lanbide Heziketako Sektore Berezietako espezialistak	Lanbide Heziketako 10 espezialitate zehatz: estetika, soldadura, sukaldaritza eta pastelgintza, etab.
	Hizkuntzak	Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleak: euskara, frantsesa, italiera, ingelesa etab.
	Arte Plastikoa eta Diseinua	IDarteko irakasleak: marrazketa teknikoa, bolumena, argazkigintza, artearen historia, etab.
	Musika	Kontserbatorioetako irakasleak: txistua, pianoa, korua etab.
	Arte Dramatikoa eta Dantza	Dantzertiko irakasleak: akrobazia, dramaturgia, interpretazioa etab.



Gogoratu:

· Araudiak irakurtzean ez nahastu *kidego* eta *erkidego* hitzak. *Kidegoak* goiko koadroan azaltzen direnak dira, aldiz, *erkidegoak* EAE, Nafarroa etab. dira.

· Ordezkoen araudiaren (Agindua, 2026ko maiatzaren 11koa) III. eranskinean zehaztuta daude espezialitate bakoitzean izena emateko onartzen diren titulazioak.

1.2. IZAERA

Izaera indarrean dugun lan kontratu motaren araberakoa da:

	EPEa gainditu eta plazarik lortu dute?	Ikasturte osoko lanpostu batean daude?
Ordezko funtzionarioak	✗	✗ Ikasturtean zehar hainbat ikastetxetan egiten dute lan. Gaixotasun bajak, gurasotasunak, baimenak/lizentziak eta mota horretako lanpostuetan lan egiten dute. Ez dira lanpostuaren titularrak ez jabeak, beste norbait ordezkatzen ari dira.
Bitarteko funtzionarioak	✗	✓ Irailaren 1etik abuztuaren 31ra arte ikastetxe berdinean egiten dute lan. Hutsik dauden, hau da, titularrik ez duten lanpostuetan (“bakanteak”), edo titularra izan arren, ikasturte osoko iraupena duten lanpostuetan lan egiten dute (titularra beste nonbait dagoelako lanean). Lanpostuaren titularrak izan daitezke, baina ez jabeak.
Praktikaldiko funtzionarioak	✓ EPE batean plaza lortzeko azken fasean daude, praktikaldian. Hori gainditzean karrerako funtzionario izendatuak izango dira EHAAn.	✓ Ikasturte osoa ikastetxe berdinean egiten dute lan eta horietako hilabete batzuk praktikaldi gisa baloratuko dira. Lanpostuaren titularrak dira, baina ez jabeak.
Karrerako funtzionarioak	✓ EPE baten fase guztiak gainditu dituzte eta plaza lortu dute.	✓ Beti izango dute ikasturte osoko lanpostu bat. Lanpostuaren titularrak dira. Behin-betiko destinoa lortzen dutenean lanpostuaren jabeak izango dira.

2. HEZKUNTZA SAILAREN GUNEAK

Hezkuntza Sailak plataforma edo gune ezberdinak ditu informazioa argitaratzeko eta langileekin kudeaketa/tramiteak egiteko. Garrantzitsua da guneak ezagutu eta bakoitzaren erabilerak identifikatzea.

GUNEA	ERABILERA
Hezkuntza Sailaren webgunea	www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/ · Gune irekia da, ez da erabiltzailerik/pasahitzik behar. · Kontsulta gunea da, informazioa lortzekoa: - Legedia, araudiak, ebazpenak, deialdiak, etab. - Hezkuntzan aplikagarri diren protokoloak. - Prozesu administratiboei buruzko deialdi, berriak eta oharrak.
Hezigunea	www.hezigunea.euskadi.eus · Gune pertsonala da, bakoitzak bere erabiltzaile eta pasahitza lortuko ditu sartzen den lehen aldian. · **Norberaren datuak kontsultatzeko:** zerbitzu-orria, nominak, DAE-a, ikastetxea, etab. · **Prozesu administratiboak kudeatzeko:** izena eman, emaitzak ikusi, erreklamazioak egin, etab. · **Hezkuntza Sailarekin harremanetan jartzeko: Komunikabide (kontsultak egiteko) eta Tramitagune (eskaerak egiteko).**
Ordezkagunea	www.ordezkagunea.euskadi.eus · Gune pertsonala da, Heziguneko erabiltzaile eta pasahitz berdinak erabiltzen dira. Ordezkoek soilik erabiltzen dute. · Ordezkapenetarako datuak ikusteko (zerrendako hurrenkera, adibidez) eta lan egoera aldatzeko. · **Eguneroko ordezkapenen esleipenean parte hartzeko: lanpostuak eskatzeko eta esleipena ikusteko.**
EIZU	Sailaren webgunea → Langileak → EIZU · Hainbat eskaera egiteko (besteak beste, lizentziak, baimenak eta murrizketak eskatu, IRPFa aldatu, etab).
ELAren webgunea	ELAren webgunean Hezkuntzaren atal propioa dugu. Bertan albisteak, langileentzako oharrak, material teknikoa (gidak etab.) zein hitzarmen eta araudi nagusiak dituzue. https://www.ela.eus/eu/gizalan/irakaskuntza

Gogoratu: EIZU eta Tramitagunean sartu ahal izateko beharrezkoa da BakQa izatea.

3. ZER EGIN LANEAN HASI AHAL IZATEKO?

Hezkuntza Publikoan lanean hasteko ondoren azaldutako lau sarbide hauek daude:

3.1. ZERRENDETAN IZENA EMATEA

Orokorrean ikasturte osoan zehar edozein momentutan egin daiteke (halere, gomendagarria da abuztuaren 31a baino lehen izena ematea, ondoren azalduko dugun Birbaremazio prozesua dela eta). Salbuespenez, zerrenda/espezialitate gutxi batzuk ez dira irekita egoten ikasturte osoan zehar, beraz, kasu horietan beste hiru sarbide motak erabili beharko dira.

Hezigunea (lehen aldian erregistratu) → Eremu pertsonala → Izapideak langileen sailarekin → Ordezkogaiak: zerrenda irekietako sarbidea/irekiera berriak → Zerrendetan sartzeko nire eskaera kudeatzea → Hizkuntza Eskakizuna hautatu * → Online eskabidea → Onartu



*** Gogoratu:** Hizkuntza Eskakizuna lanpostuen euskara maila da. 2 aukera hauetako bat hautatu behar da. Langileak egiaztatu beharko du lanpostuak duen euskara maila edo altuagoa duela:

- **HE2:** C1 maila daukaten lanpostuak bakarrik eskatzeko.
- **HE2 eta HE1:** B2 zein C1 maila daukaten lanpostuak eskatzeko.

Zerrendetan izena emateko prozesuan hiru "pantaila" daude:

1. **Identifikazio datuak:** datu pertsonalak bete behar dira.

2. **Lurralde/lanaldi aukerak zehaztu eta zerrendak/espezialitateak hautatu:** alde batetik, EAEko zein lurralde eta lanaldi motatako lanpostuak eskatu nahi diren zehaztu behar da (Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia, eta lanaldi osoko lanpostuak, murriztuak ala biak). Garrantzitsua da oso ongi hausnartzea, ikasturtean behin bakarrik aldatu ahal izango baitira aukera horiek (Birbaremazioan), eta gainera, zehaztutako aldaketak hurrengo ikasturtean aplikatuko dira, ez momentuan bertan. Bestalde, izena eman nahi den/diren espezialitatea(k) aukeratu behar dira. Ordezkoen araudiaren (Agindua, 2026ko maiatzaren 11koa) III. eranskinean zehaztuta daude espezialitate bakoitzean izena emateko onartzen diren titulazioak.

3. **Dokumentazioa igo:** zerrendetan izena emateko beharrezkoak diren titulazioak PDF formatuan igo behar dira. Betekizun horiek Ordezkoen araudiaren hasieran zehaztuta daude (*hurrengo orrian laburbilduta*).

Behin zerrendetan izena ematean, Hezkuntza Sailak balioztatu beharko du langileak igotako dokumentazioa. Ez dago epe zehatzik Hezkuntzak hau egiteko. Hezkuntzaren onespena jasotzen denean langileak Ordezkaguneko lanpostu eskaintzetan parte hartu ahal izango du.

ZERRENDETAN IZENA EMATEKO BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK:

<table>
<tr><th>KIDEGOA</th><th>IKASKETA TITULAZIOA</th><th>EUSKARA MAILA</th><th>IRAKASKUNTZA MASTERRA (edo baliokidea)</th></tr>
<tr><td>Maisu-maistrak</td><td>Irakaskuntza gradua edo baliokidea</td><td>Lanpostu ia denak C1ekoak</td><td>Ez</td></tr>
<tr><td>Bigarren Hezkuntza eta Hizkuntzak</td><td rowspan="2">Doktoretza, lizentziatura, ingeniaritza, arkitektura, gradua edo baliokideak</td><td rowspan="3">C1 eta lanpostu batzuk B2koak</td><td>Bai</td></tr>
<tr><td>Musika, Arte Plastikoa eta Diseinua eta Arte Dramatikoa eta Dantza</td><td>Ez</td></tr>
<tr><td>Lanbide Heziketako Sektore Berezitako Espezialistak</td><td>Lizentziatura, ingeniaritza, arkitektura, Lanbide Heziketako goi-mailako teknikari titulua, diplomatura, arkitektura teknikoa, ingeniaritza teknikoa, gradua edo baliokideak</td><td>Bai</td></tr>
</table>

3.2. JADA ZERRENDETAN EGONDA, BESTE ZERRENDA BATEAN SARTZEA

Dagoeneko zerrenda batean baldin badago langilea, Birbaremazio prozesuan beste espezialitate batzuetako zerrenda(ta)n izena eman dezake, zerrenda horietan izena emateko beharrezko titulazioa/k izanez gero, noski. Berriro ere, Ordezkoen araudiko (Agindua, 2026ko maiatzaren 11koa) III. eranskinean zehaztuta daude espezialitate bakoitzean izena emateko beharrezkoak diren titulazioak.

3.3. APARTEKO ZERRENDETAN IZENA EMATEA

Ikasturteko momentu jakin batean, espezialitateren batean jende falta baldin badago, aparteko zerrenden deialdiak argitaratzen ditu Hezkuntza Sailak. Ohiko zerrendekin alderatuta, aparteko zerrenda hauetan izena emateko baldintzak malguagoak izaten dira, izan ere, normalean eskakizun diren euskara maila eta/edo irakaskuntza masterra izatea batzuetan ez da derrigorrezkoa aparteko zerrendetan.

Sailak webgunean argitaratzen ditu deialdiak eta informazioa. Izen ematea, aldiz, Hezigunetik egiten da:

Hezigunea (lehen aldian erregistratu) → Eremu pertsonala → Izapideak langileen sailarekin → Ordezkogaiak: zerrenda irekietako sarbidea/irekiera berriak → Zerrenda irekitze berriak → Eskaera-aldia irekia dutenak (ESKABIDEA)

3.4. EPE BATERA AURKEZTEA

EPE batera aurkezteak hiru ondorio izan ditzake:

1. **EPE-a gainditzea eta plaza lortzea:** lehenik PRAKTIKALDIKO eta gero KARRERAKO FUNTZIONARIO bihurtuko da langilea.

2. **EPE-a gainditzea baina plazarik EZ lortzea:** aurkeztutako espezialitateko zerrendan sartuko da langilea.

3. **EPE-a EZ gainditzea:** ez da ezer lortzen eta ez du inongo penalizaziorik. Beste sarbideetan zehaztutakoa egin beharko da.

4. ZERRENDA MOTEN ARTEKO LEHENTASUNAK

Sarbide mota desberdinak daudenez, zerrenda mota desberdinak sortzen dira. Beraz, laburbilduta (araudian zehaztasun guztiak), zerrenden arteko hurrenkera honela ezartzen da:

1. **Zerrenda orokorra:** Birbaremaziotik ateratzen dena da.

2. **EPEa gainditu dutenen zerrenda:** EPEa gainditu baina oraindik Birbaremazio bat pasatu ez dutenak dira. Birbaremazioa pasatzean zerrenda orokorrera gehitzen dira.

3. **Zerrenden izen-emateen ondoriozko zerrenda:** baldintzak betetzen dituzte baina oraindik Birbaremazio bat pasatu ez dutenak dira. Birbaremazioa pasatzean zerrenda orokorrera gehitzen dira.

4. **Hizkuntza Eskakizuna betetzen ez dutenen zerrenda:** gainontzeko betekizunak dituzte. Ezin dute Birbaremazioan parte hartu. Ezin dituzte lurraldeak/lanaldi motak aldatu.

5. **Prestakuntza Pedagogikorik (irakaskuntza masterra) ez dutenen zerrenda:** gainontzeko betekizunak dituzte. Ezin dute Birbaremazioan parte hartu. Ezin dituzte lurraldeak/lanaldi motak aldatu.

6. **Hizkuntza Eskakizunik ez eta Prestakuntza Pedagogikorik (irakaskuntza masterrik) ez dutenen zerrenda:** titulazio betekizunak dituzte soilik. Ezin dute Birbaremazioan parte hartu. Ezin dituzte lurraldeak/lanaldi motak aldatu.

5. BIRBAREMAZIOA

Norberaren fitxa zein puntuazioa eguneratzeko prozesua da, eta zerrenda orokorraren hurrenkera zehazten du hurrengo ikasturterako.

Laburbilduta, hau da Birbaremazioan egiten dena:

1. **Norberaren fitxa eguneratu:** hainbat datu molda daitezke, adibidez, datu pertsonalak, lurraldeak, lanaldi motak, zerrendak, Hizkuntza Eskakizuna, eta abar.

2. **Puntuazioa eguneratu:** Sailak ofizioz (automatikoki) gehitzen dituen puntuak zein norberak gehitu nahi dituen merituak eguneratzen dira. Birbaremazio prozesuan aplikatzen den baremoa Ordezkoen araudiko I. eranskinean dago (Agindua, 2026ko maiatzaren 11koa). Puntuatzen duten hainbat gauza daude, baina garrantzitsuena lan-esperientzia da. Ondorioz, normalean, zenbat eta lan gehiago egin, orduan eta puntu gehiago ditugu, eta beraz, zerrendan gorago gaude. Horrela, ez beti baina bai askotan, hasieran puntu gutxi ditugunean ordezkapenak egiten ditugu, eta denborarekin puntu gehiago lortzean, urte osoko lanpostuak hartzera iristen gara eta bitarteko funtzionario bihurtu.

3. **Zerrenda orokorrera pasa:** Birbaremazioaren bidez bestelako zerrendetan dauden langileak zerrenda orokorrera pasatzen dira, beti ere, gida honen 4. atalean aipatutako baldintzei jarraituz.



Azkenik, jakin, Birbaremazioa ikasturtero egiten dela. Eskaera normalean azaroan egiten da, eta ikasturte osoan zehar hainbat kudeaketa egin behar dira (erreklamazioak…). Azkenik, behin-betiko zerrendak, emaitzak, martxoa/apirila aldera argitaratzen dira. Hala ere, Birbaremazioan egindako aldaketa/eguneratzeak/zerrendan orokorrean sartzeak hurrengo ikasturtean aplikatzen dira, eta ez argitaratu eta berehala.

Gogoratu: zerrendetan izena emandakoek Birbaremazioan parte hartu ahal izango dute baldin eta aurreko ikasturteko abuztuaren 31 baino lehen eman bazuten izena.

Birbaremazio garaian prozesu honi buruzko gida zehatz bat ateratzen dugu eta hitzaldiak egiten ditugu ELAko afiliatuei prozesuaren xehetasun guztiak azaltzeko.



6. IKHA ESLEIPENAK eta ORDEZKAGUNEA

IKHA esleipenak eta Ordezkagunea lanpostu bat lortzeko dauden bi bideak dira.

6.1. IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENAK

ELA Hezkuntzatik prozesu honi buruzko gida zehatza eta egutegia argitaratzen ditugu. Hitzaldiak ere antolatzen ditugu gure afiliatuei prozesuaren xehetasun guztiak azaltzeko.







Laburbilduta, prozesu hau **urtero ekainean/uztailean zehar egiten da, eta bertan eskaintzen diren lanpostuak ikasturte osoko luzera dutenak dira**. Hori dela eta, normalean puntu dezente dituztenek lortzen dute lanpostua IKHAn. Hala ere, prozesua borondatezkoa da nahi duen orok parte har dezake, baldin eta zerrenda orokorrean baldin badago. Parte ez hartzeak ez dakar inongo penalizaziorik. Gogoan izan espezialitate batzuetatik besteetara alde nabarmenak daudela eta ikasturte osoko lanpostu bat lortzeko behar diren puntuak oso desberdinak direla espezialitate bakoitzean.


Prozesu honen araudia eta egutegia Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratzen dira maiatza/ekaina aldera, eta gero, lanpostuak Hezigunetik eskatzen dira. Karrerako eta praktikaldiko funtzionarioek ere parte hartzen dute, eta lanpostua lortzeko lehentasuna dute bitarteko eta ordezkoekiko. Ordezko eta bitartekoen kasuan, lanpostuak Birbaremazioko puntuazioaren arabera esleitzen dira. Lanpostu bat inork hartzen ez badu, ez da ofizioz esleitzen (hutsik gelditzen da) eta abuztua amaierako Ordezkagunean eskaintzen da berriro.

Gogoratu: IKHA ez dago Birbaremazioan jarritako aukerei lotuta. Hau da, IKHAn langileak nahi dituen lurralde eta lanaldi motako lanpostuak eska ditzake, Birbaremazioan beste aukera batzuk jarrita izan arren. Birbaremazioan jarritako aukerak Ordezkaguneko esleipenetarako erabiltzen dira.

IKHAn parte hartu eta lanpostu bat lortzen duten langileak irailaren 1ean hasi behar dira lanean esleitutako ikastetxean. Salbuespenez, justifikatutako egoeran dauden langileak, bajan adibidez, azaroaren 30a arte atzeratu ahal izango dute lanpostuaren jabetza, hala eskatzen badute.

Jabetza egiten ez bada eta onartutako uko egiteko salbuespenen barruan ez badago, penalizazioa dakar: lanpostua galtzea eta zerrendetatik bi ikasturtez/urtez kanporatua izatea.

6.2. ORDEZKAGUNEA



Ordezkagunearen webgunean gune honi buruzko xehetasun guztiak jasotzen dituen gida dago, Hezkuntza Sailak argitaratutakoa. ELAtik oso gomendagarria deritzogu hori irakurtzeko tartea hartzeari, eskuartean duzuen gida honetan azaldutakoaz gain, sistemaren xehetasun guztiak azaltzen baititu.

Laburbilduta, Ordezkagunea **ikasturtean zehar sortzen diren ordezkapenak esleitzeko** erabiltzen den plataforma da. Beraz, gehienetan ikasturte osoko iraupena EZ duten lanpostuak esleitzen dira Ordezkagune bidez: gaixotasun bajak, gurasotasunak, baimenak/lizentziak etab.

Hala ere, ikasturtean behin, salbuespen bat dago aurreko parrafoan esandakoarekiko: abuztua bukaeran eta irailaren lehen egunetan, hau da, IKHA amaitu eta gero, ikasturte osoko iraupena duten lanpostu batzuk esleitzen dira Ordezkagune bidez. Lanpostu hauek IKHAn esleitu gabe geratu direnak, udan zehar sortutako jubilazioak eta halakoak izaten dira, besteak beste. Behin salbuespenezko Ordezkagune hau pasata eta ikasturtea hasita dagoenean, aurreko paragrafoan azaldutakora itzultzen da Ordezkagunea.

Gogoratu: oso garrantzitsua da jakitea Ordezkagunean parte hartu ahal izateko, Ordezkagunean langileari azaltzen zaion lan egoera "Lanerako prest" izan behar dela, bestela ezin dira lanpostuak eskatu. Lan egoera motak eta batetik bestera aldatzeko prozesua Ordezkagunearen gidan azalduta daude. Kontuan izan urte osoan zehar "lanerako prest" ez egoteak penalizazioa izan dezakeela, adibidez, udako kobrantzarako.

Behin "Lanerako prest" egonda, langileak egunero sistemara sartu beharko du eta egun horretan eskaintzen diren lanpostuak eskatu ahal izango ditu (Birbaremazioan jarrita dituen lurralde/lanaldi/espezialitateetakoak soilik). Prozesua borondatezkoa da, baina IKHArekin gertatzen ez den bezala, Ordezkagunean lanpostuak ofizioz (hau da, eskatu gabe ere) esleitu daitezke "Lanerako prest" daudenen artean. Zehazki, momentu horretan zerrendan dagoen azkenekoari (puntu gutxien dituenari) esleitzen zaio hutsik geratu den, hau da, inork eskatu ez duen lanpostua. Beraz, parte hartzea borondatezkoa den arren, adi ibili behar da zerrendaren amaiera aldera bazaude. **Berrikuntza gisa, ikasturtean behin nahitaezko esleipen bati uko egiteko aukera dago, penalizaziorik gabe zerrendei dagokionez, baina ondorioak ditu udako kobrantzan.**

Ordezkagunearen **ordutegia** hau da:



- **9:30etatik 13:00etara**: lan egoera aldatu.
- **13:30etatik 15:30etara:** egun horretako lanpostu hutsen eskaera egin.
- **15:45etatik aurrera:** esleitutako lanpostuak ikusi. Ordu hau aldatu egin daiteke eskainitako plaza kopuruen arabera.

1. Hautagai bati plaza bat esleitzen zaionean, emailez eta SMS bidez jakinaraziko zaio. Jakinarazpena ez jasotzeak ez du hautagaia salbuesten.

2. Udako bi hilabete osoei dagozkien dirusariak jaso ahal izateko, gutxienez 165 egun naturalez kontratupean egon behar du langileak, lanean ez dagoenean "Lanerako prest" egoeran egon behar du Ordezkagunean eta ezin du justifikaturik gabeko ukorik egin ikasturte osoan.

7. ZER EGIN LANPOSTU BAT LORTZEAN?

1. **Esleitutako ikastetxera joan:** esleitutako lanpostuak ezarritako data eta orduan.

2. **Lanpostuaren jabetza egin:** EAEko irakaskuntza publikoan ez dugu lan kontraturik sinatzen, jabetza baizik. Jabetza egiterakoan bi kasu bereizten dira. Ikasturte osoko lanpostuen kasuan, lehen egun eta orduan ikastetxeko zuzendaritzarengana jo behar da, eta haiek jabetza egin dela, hau da, langilea lanera joan dela, ziurtatuko dute. Ordezkapen lanpostuen kasuan, Ordezkagune bidez esleitutako lanpostuaren jabetza digitalki egiten du langileak berak, Hezigunean.

3. **Ordezkagunean beharrezko informazioa jaso:** lehen aldiz lanpostu bat lortzen denean, eta soilik lehen aldi horretan, Ordezkagunean norberari buruzko hainbat datu jaso behar dira (kontu korronte zenbakia, adibidez). Bestalde, Hezigunetik, zehazki hasiera orrian, Hezkuntza Sailari baimena eman behar zaio Sexu Delitugileen Erregistro Nazionalean kontsultatzeko sexu-izaerako deliturik egin ez dugula. Oso garrantzitsua da guzti hau lehenbailehen egitea Gizarte Segurantzan alta eman ahal izateko.

Gogoratu:

1. Lanpostu batean hastean Hezkuntza Sailak automatikoki aldatzen dio Ordezkaguneko lan egoera langileari “Lanean” lan egoerara.



2. Aldiz, ordezkapen bat amaitzen den bakoitzean, langilea bera da bere Ordezkaguneko lan egoera berriro “Lanerako prest” bezala izatera aldatu behar duena. Sailak ez du automatikoki egiten.

3. Lanpostu bati uko egiten bazaio eta ez bada justifikatzen araudian onartutako egoera batengatik, hautagaia “*Aldi baterako penalizazioa*” egoerara pasako da ikasturte horretan eta hurrengoan.

Azkenik, **ordezkoek kontuan izan beharreko hiru arau laburbilduta** hemen (Ordezkoen arauditik ateratakoak, Agindua, 2026ko maiatzaren 11koa):

1. Ordezkapen bat bukatu eta 10 lanegun baino lehen irakasle berbera ordezkatzeko beharra sortzen bada, ordezko berdinak egin ahal izango du ordezkapen hori, betiere “Lanerako prest” baldin badago / beste ordezkapen bat aurretik lortu ez badu. Ikastetxeak jakinarazi behar dio langileari.

2. Ordezkapena lanaldi osokoa baldin bada eta titularrak, lanera bueltatzerakoan, lehen egunetik lanaldia murrizten baldin badu, ordezkoak ordezkapen hori egiten jarraitu ahal izango du, ados badago (Ordezkoen araudia 28.3. artikulua).

3. Langileak lanaldi murriztuko lanpostu bat badu eta ikastetxe berdinean beste lanaldi murriztuko ordezkapena suertatzen bada, langile horrek lanaldiak metatzeko lehentasuna izango du, hala nahi badu, (betiere espezialitate bera ematen ari bada, ordutegiak bateragarriak badira eta jardunaldi osora iritsi arte).

8. LANGABEZIA KOBRATZEA LANALDI MURRIZTUETAN

Langile askok, lanaldi murriztutako lanpostuak lortzen dituztenean, langabeziarekin konpentsatzen dute egoera, lanaldi osora arteko dirusariak jasotzeko. Duela gutxi arte, hori egin ahal izateko baldintza batzuk bete behar izaten ziren, honakoak:

1. Birbaremazioan lanaldi mota guztiak eta lurralde guztiak aukeratuta izatea, hau da, lanaldi osoak zein murriztuak eta hiru lurraldeak.

2. Lanpostua lortu zen esleipenean (IKHA edo Ordezkagunean) lanaldi osoko lanpostua lortzeko aukerarik ez izana. Hau da, adibidez, lanaldi osoko zein murriztutako lanpostuak eskaini badira, norberaren eskaeran hurrenkeran lanaldi osokoak aurretik jarri izana.

Baina adi! Duela gutxi arte baldintza hauek bete behar ziren arren, azkenaldian jakin izan dugu SEPEren barne irizpideak aldatu direla eta jada ez dituztela datu hauek Hezkuntza Sailarekin kontrastatzen. Beraz, ditugun azken informazioetan oinarrituz, jada ez da derrigorrezkoa baldintza hauek betetzea langabeziarekin jardunaldia konpentsatu ahal izateko. Dena den, ELAtik gomendatzen dizuegu egoera honetan bazaudete, SEPErekin zuzenean zuen egoera zehatza argitzea.



Gogoratu:

1. Hamabost laneguneko epea dago kontratuan aldaketa eman denetik SEPEn prestazioa/konpentsazioa eskatu eta kudeatu ahal izateko.

2. Langabezia eskatzeko eta onartzeko baldintza eta xehetasun guztiak SEPEn kontsultatu behar dira.

9. BATERAGARRITASUNAK

Bateragarritasunaz hitz egiten dugunean, ordaindutako bigarren lan batean aritzeaz ari gara. Hau da, Hezkuntza Publikoan lanean ibiltzeaz gain, bestelako lanpostu batean lanean aldi berean egoteari buruz.

Irakaskuntza publikoan lanean egonik, arau orokor gisa, bigarren lan bat izateko baldintza batzuk bete behar dira, eta gainera, alor pribatuan aritzeko baldin bada, soldataren parte bati uko egin behar zaio.

Hezkuntza Sailaren webgunean daude araudia eta azken urtetan onartutakoak:

Langileak → Lan-erregimena → Bateragarritasunak

10. ELA SINDIKATUAREN EZAUGARRIAK

ZEIN DA ELA SINDIKATUAREN ZEREGIN NAGUSIA?

Langile klasea antolatzea, gure kasuan irakaskuntza publikoko langileak, irakasleon lan eta bizi baldintza duinak borrokatu eta defendatzeko.

Horretarako, negoziazio kolektiboaz baliatzen gara. Eta zer da hori?

- Irakasleon lan-baldintzak hitzarmen eta akordio desberdinetan arautzen dira.
- Hitzarmen eta akordio horiek mahai negoziatzaileetan adosten dira.
- Hori dela eta, sindikatu bezala tresna bakarra dugu negoziazio kolektiboa baldintzatu eta bertan eragiteko: **LANGILEAK**. Langileak antolatzea, langileak mobilizatzea eta indar korrelazioa gure alde jartzea Hezkuntza Saila mugitzera behartzeko.

ZERK DEFINITZEN GAITU SINDIKATU BEZALA?

- ✓ **ELA Hego Euskal Herriko sindikaturik indartsuena da**: 104.000 afiliatu baino gehiago ditugu eta ordezkaritzaren %36a gurea da Hego Euskal Herrian (%40tik gorakoa EAEn). Irakaskuntza Publikoaren kasuan, gaur gaurkoz, hirugarren sindikatua gara. 4 urtetik behin Hauteskunde Sindikalak ditugu eta gure ordezkaritza maila handitzeko lanean ari gara, irakaskuntza publikoan ere benetako borroka eraginkorrak martxan jarri ahal izateko.

- ✓ **Afiliazioak sostengatzen duen proiektua da ELA**: sindikatuaren finantzazioaren %90a afiliatuen kuotetatik dator. Horrek autonomia ematen digu langileen interesak defendatzeko, ez baikaude gobernuen, alderdi politikoen edo dirulaguntzen menpe. Afiliazioa da ELAren indargunea.

- ✓ **ELA sindikatu abertzalea da**: sindikatuak euskal errepublika baten alde egiten du, Euskal Herriaren burujabetza lortzeko. ELAk argi du Euskal Herriaren etorkizuna ezin dela Espainiar eta Frantziar estatuen menpe eraiki, horregatik, esparru guztietan burujabetza eskuratzeko borrokak zentraltasuna hartu behar duela defendatzen du. Langile klasearen eta gure herriaren askatasuna helburu, burujabetzarako borrokan eragile aktibo izaten jarraituko du sindikatuak.

- ✓ **ELA klase sindikatua da:** langile klase guztia ordezkatzen dugu, sektore eta kolektibo guztietakoak. Ez dugu lan munduko sektore bakoitza modu isolatuan ulertzen. Interes indibidualen prebalentziak (horrela ulertzen ditugu sindikatu korporatiboak) langile klasea ahultzen du eta interes kolektiboak alboratzen ditu. Kapitalismo berak sustatzen duen indibidualismoaren prismatik sortutako erakundeak dira. Tamalez sektore publikoan asko ematen den sindikalismo mota da.

- ✓ **ELAk hezkuntza sistema bakarra, publikoa, burujabea, euskalduna eta anitza nahi du**: egungo sare banaketa gaindituko duena, burujabea dena Espainia eta Frantziaren eredu uniformatzailetik zein kapitalaren eta enpresen nahi pribatuengandik, Euskal Herria erreferentzi-marko gisa duena, eta bizikidetzarako balioen transmisioa egingo duena (hezkidetza, naturarekiko errespetua, herrikideekiko errespetua...) baina era berean ikasleei ikuspegi kritikoa izateko gaitasuna emango diena.

- ✓ **Langileekiko hurbiltasuna oinarria da ELAn**: Hego Euskal Herriko 43 herritan ditugu bulegoak eta, Hezkuntzaren kasuan, eskualde bakoitzean liberatu-talde bat gaude, eskualde horretako ikastetxeekin eta afiliatuekin harreman zuzena dugunak.

- ✓ **Sindikatuaren babesa ematen diogu afiliatuei**:
  - Eguneroko gaiei buruzko zalantzak argitu, erreklamazioekin lagundu etab.
  - Zerbitzu juridikoak eskuragarri dituzte: aholkularitza, gorako helegiteak, etab.
  - **Erresistentzia Kutxa:** ELAren borrokek duten eraginkortasuna azaltzen duen gakoa da. Gizartean oso ezaguna da elkartasun tresna hau. Afiliatu bakoitzak ordaintzen dugun kuotaren laurden bat kutxara doa. Diru hori greban dauden langileengana bideratzen da, langileek borrokan jarraitu ahal dezaten akordio on bat sinatu arte.

Jarraitu ELA Hezkuntzaren sareak!

ELA IRAKASLEAK EAE

ELA Hezkuntza EAE

ELA Hezkuntza

ELA Hezkuntza